

SARRERA

Mutualiaren helburuetako bat kudeaketari dagokionez erreferentea izatea da, eginkizun horretan modu etikoan, gardentasunez eta gizartearekiko konprometitua jardunez. Gure balioetan nabarmenena jarrera etikoa da, hain zuzen ere; horregatik, arduraz, zintzotasunez eta errespetuz jarduten dugu lanean.

Hori horrela izanik, Kode honen bidez, alde batetik, Mutualian estandar etikoen alde daukagun konpromisoa berretsi nahi dugu, eta, bestetik, aliatu eta hornitzaile ditugunei gure arteko merkataritza-harremanetan zer-nolako jokabide izatea nahi dugun argi eta garbi adierazi nahi diegu, bai eta beren jardueran hori aintzat hartzea ere.

Gure aburuz, aliatu eta hornitzaile ditugun pertsonak eta enpresek zerikusi handia daukate gure erakundearen arrakastarekin; izan ere, Mutualiaren izen ona gure jokabidean oinarritzen da, bai, baina baita gure hornitzaileen jokabidean ere. Hori dela-eta, gure balioekin bat egiten dutenekin egin nahi dugu lan.

Enpresa hornitzaileek, Kode hau onartzean, honako konpromiso hau hartuko dute: Mutualiarekin izango dituzten negozio eta harreman guztietan, dokumentu honetan adierazitako etika eta jokabide profesionaleko oinarritzko printzipioak errespetatuko dituztela.

Enpresa hornitzaile bakoitzak bermatu beharko du bere langileek, ordezkariak eta langile azpikontratatuak Jokabide Kode hau ulertzen eta betetzen dutela.

XEDEA

Enpresa hornitzaileei Mutualiarekiko ohiko harremanetan zer jarrera izan behar duten jakinaraztea, eta Mutualiak berak, bere jardun-eremu guztietan, gizartearen aldeko konpromisoa duen enpresa izateko helburua betetzea.

Hona hemen, bada, Mutualiak bere aliatu eta enpresa hornitzaileei eskatzen dizkien printzipio nagusiak:

PRINTZIPIOAK

LEGE ETA ERREGELAMENDUAK BETETZEA

Jarduera garatzen den herrialdeetan aplikagarri diren indarreko lege eta erregelamenduak errespetatuz eta betez jardutea. Dela beraiek egindako jardueretan, dela hirugarrenek egindakoetan.

Lege- edo erregelamendu-esparruetan jasotzen ez diren salbuespenak bilatzen edo onartzen ez ibiltzea, batik bat osasunarekin, laneko segurtasun eta higieñarekin, eta ingurumenarekin lotutako jardueren harira.

OSOTASUNA

Bezeroak eta enpresa hornitzaileak zintzotasunez tratatzea funtsezkoa da merkataritza-harreman sendoak ezartzeko.

Enpresa hornitzaileek ez dute inongo ustelkeria, estortsio edo bidegabeko erabilerarik onartuko. Enpresa hornitzaileek ez dute ez eroskeriarik, ez legez kanpoko bestelako pizgarririk eskainiko edo onartuko.

Mutualiak tratu inpartzial bera eman nahi die enpresa hornitzaile izan daitezkeen guztiei. Negozio-erabakiak prezioan, kalitatean, zerbitzua emateko ahalmenean, fidagarritasunean, osotasunean eta beste irizpide objektibo batzuetan oinarritzen dira.

SEGURTASUNA, OSASUNA ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Laneko arriskuak prebenitzeari eta laneko segurtasuna eta osasuna babesteari buruzko arauak bete beharko dituzte, eta beren langileen osasunaren eta segurtasunaren erantzule izango dira. Gainera, beren lan-inguruneak segurua eta higienikoa izan behar du.

Arriskuak kontrolatu beharko dituzte, eta istripuak eta lanbide-gaixotasunak saihesteko prebentzio-neurri arrazoizkoenak hartu. Horrez gain, langileak prestatu beharko dituzte, eta osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako gaitan prestakuntza jasotzen dutela bermatu. Gainera, laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko arrazoizko sistema bat ezarri beharko dute.

Enpresa hornitzaileek beharrezko kontrol egokiak, laneko segurtasuneko prozesuak eta prebentzioko mantentze-lanak egingo dituzte eta babes teknikoko beharrezko neurriak hartuko dituzte lantokiko osasun- eta segurtasun-arriskuak arintzeko, eta langileei norbera babesteko ekipo egokia eman beharko diete.

KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresa hornitzaileek jabetza intelektuala, merkataritza-sekretuak eta Mutualiaren beste edozer informazio konfidentzial errespetatu beharko dituzte, eta ezin izango dute informazio hori erabili edo hedatu, Mutualiak aurrez idatziz baimena eman ez badu, edo legediak, Administrazioak edo epaileak agindutako betebeharra ez bada.

Enpresa hornitzaileek konfidentziasunez tratatu beharko dituzte Mutualiaren eragiketei dagokien informazio eta datu guztiak.

Hona hemen enpresa hornitzaileek Mutualiaren informazio konfidentzialari edo jabetza eskusiboko informazioari dagokionez dauzkaten betebeharrak:

- Informazioa enpresa hornitzailearen antolamenduko beste pertsoneri ez jakinaraztea, Mutualiari zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoa denean salbu.
- Halako informazioa enpresa hornitzailearen antolamenduaz kanpoko pertsoneri ez hedatzea.
- Informazioa enpresa hornitzailearen onurarako ez erabiltzea, ez eta beste inoren onurarako ere.
- Datu pertsonalen babesari buruzko araudia zorrozki betetzea.

NEGOZIO ETIKA

Ez diskriminatzea

Enpresa hornitzaileak ez du inor diskriminatuko arraza, kolore, erlijio, sexu, adin, gaitasun fisiko, nazionalitate, egoera zibil edo sexu-joeragatik kontratazioan, ordainketetan, prestakuntzan, sustapenetan, kaleratzeetan edo erretiroa hartzerakoan.

LANEKO JOKABIDE ESTANDARRAK

Haurren lana

Mutualia haurren mota orotako lan-esplotazioaren kontra dago; hots, adingabeentzat mentalki, fisikoki, sozialki edo moralki arriskutsua izan daitekeen edozer lanen kontra.

Lanaldia

Enpresa hornitzaileak bermatu beharko du bere langileek lanorduei eta lanegunei buruzko legedi aplikagarrietan xedatutakoaren eta erreferentziako estandarren arabera egiten dutela lan.

Ordainketa

Enpresa hornitzaileak lege aplikagarrietan eta hitzarmen kolektiboetan zehaztutakoaren araberako soldadak eta onurak eman beharko dizkie bere langileei.

PRODUKTUAREN EDO ZERBITZUAREN KALITATEA ETA SEGURTASUNA

Enpresa hornitzaileak entregatzen dituen produktu eta zerbitzu guztiek lege aplikagarriek eskatutako kalitatea eta segurtasun-estandar eta parametroak izan beharko dituzte, eta koherentziaz doitu beharko dira Mutualiaren beharretara, funtzionamendua eta segurtasuna bermatuz, aurreikusitako erabileraren arabera.

INGURUMENA

Mutualiak ingurumen-babesa sustatzeko eskatzen die bere enpresa hornitzaileei; hots, baliabide naturalak eraginkortasunez erabili, eta energia berriztagarriak lehenets ditzatela.

Enpresa hornitzaileak material arriskutsuei, gas-isurketei, hondakin-isurketei eta ur kutsatuei aplikagarri zaizkien ingurumen-lege eta -arau guztiak bete beharko ditu, materialon ekoizpena, garraioa, biltegiatzea, ezabatzea eta isurketa barne. Gainera, bere jardueraren ingurumen-eragina identifikatu, kudeatu eta murriztu beharko du.

Hondakinak eta isurketak

Mutualiaren hornitzaile diren enpresek ingurumenaren arloan indarrean diren lege eta arau guztiak bete beharko dituzte, bai eta beren jarduerari aplikagarri zaizkien politika publikoak ere, hondakinei eta isurketei dagokienez.

Baliabideak kontserbatzea eta klima babestea

Mutualiak baliabide naturalak eraginkortasunez erabiltzea sustatzen du, ingurumenaren eta klimaren gaineko eragin negatiboa murriztu edo ezabatzeke, dela jatorrian, dela zenbait jardueren bidez; esate baterako, ekoizpenean, mantentze-prozesuetan edo instalazioetan aldaketak eginez, materialak ordezkatzu, eta materialak kontserbatuz, birziklatuz eta berrerabiliz.

KUDEAKETA SISTEMAK

Enpresa hornitzaileek kudeaketa-sistemak ezarri behar dituzte, edo ezartzeko bidean egon, legeria aplikagarriarekin bat egiteko eta Jokabide Kode honetan adierazitako asmoak etengabe hobetzea errazteko. Honako alderdi hauek barne hartzen ditu:

Lege-betekizunak eta bestelakoak

Enpresa hornitzaileek aplikagarriak diren legeak, arauak, kontratu-akordioak eta adostu dituzten estandarrak beteko dituzte.

Hornidura-katean jasagarritasun-irizpideak jakinaraztea

Enpresa hornitzaileek Jokabide Kode honetan ezarritako printzipioen berri emango diote beren hornidura-kateari.

Prestakuntza eta gaitasuna

Enpresa hornitzaileek komunikazio-neurri egokiak ezarriko dituzte, beren zuzendariei eta, oro har, langileei Jokabide Kode honetan jasotakoa ezagutarazteko.

IKUSKARITZA, ETA AKORDIO ETA KONTRATUAK AMAITZEA

Mutualiak Kodean xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko eskubidea du, gainbegiratze-prozedura egokien bidez.

Honako hauek osatuko dute Kode Etiko honen jarraipena egiteko organoa: zuzendari gerenteak, Gai Juridikoetako zuzendariak, Giza Baliabideen zuzendariak, eta Baliabideak Kudeatzeko eta Aliantza Operatiboetarako zuzendariak; hain zuzen ere, Mutualiako Etika Batzordea osatzen dutenek.

Mutualiak ikusten badu enpresa hornitzailearen batek ez duela Kodea betetzen, edo urratu egiten dutela, arazoa konpontzeko eskatuko dio, edo amaitutzat emango du merkataritza-harremana, arau-haustearen larritasunaren eta inguruabarren arabera.